



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko irailaren 17a

111. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legea aldatzen duen 10/2014 Foru Legea bete ez izanari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legea aldatzen duen 10/2014 Foru Legea bete ez izanari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 10ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legea aldatzen duen 10/2014 Foru Legea bete ez izanari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legea aldatzen duen 10/2014 Foru Legea bete ez izanari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (3. or.).
- II. 10/2014 Foru Legea, maiatzaren 16koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duena. (4. or.).
- III. Helburuak eta norainokoa (6. or.).
- IV. Konklusioak eta gomendioak (7. or.).
  - IV.1. Abal eta maileguen gehieneko arrisku bizia eta gehieneko bolumena zehaztea (7. or.).
  - IV.2. Abalak ematean mugak betetzea (9. or.).
  - IV.3. Mugak betetzea maileguak ematean (12. or.).
  - IV.4. 10/2014 Foru Legearen aplikazioari dagokionez NFKAren eta haren menpeko entitateen jarduerak izandako ondorioak (15. or.).
  - IV.5. Amaierako konklusioa eta gomendioak (16. or.).
1. eranskina OPFLaren 75. artikulua eta IV. kapituluaren testua, 10/2014 Foru Legea indarrean jarriz geroztik (17. or.).
2. eranskina. NFKAk abalak eta maileguak emateko gehieneko mugak (19. or.).
3. eranskina. Menpeko entitateek abalak eta maileguak emateko gehieneko mugak (20. or.).

## I. SARRERA

2018ko urtarrilaren 18an, Kontuen Ganberan eskaera parlamentario bat erregistratu zen, Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkartearen ekimenez, foru sektore publikoan abalak eta maileguak ematean maiatzaren 26ko 10/2014 Foru Legea aplikatzeari buruzko fiskalizazio-txostena egiteko (2014-2017).

Zehazki, eskaeran honako aztergai hauek aipatu ziren:

- *“10/2014 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legea aldatzen duena, ez betetzeari eta horrek Gobernuaren abalak eta maileguak ematean duen eraginari buruzko azterketa.*

- *Lege hori ez betetzeari dagokionez Nafarroako Gobernuak izandako jokabidearen azterketa.*

- *Lege hori ez betetzeak zer ondorio sortu ahal izan dituen Nafarroako Gobernuaren jarduran.*

- *Txostenean Kontuen Ganberaren konklusioak eta gomendioak jaso daitezela eskatzen da”.*

Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz eta eskaera parlamentario horri erantzunez, Kontuen Ganberaren 2018rako fiskalizazio-programan sartu zen lan hau egitea.

Txostenak lau atal dauzka, sarrera hau barne; bigarreanean, 10/2014 Foru Legeak Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Legeari egiten dizkion aldaketa nagusiak deskribatzen dira; hirugarren atalak egindako lanaren helburuak eta norainokoa biltzen ditu; eta laugarrenean, azkenekoan, ondorio eta gomendio nagusiak azaltzen dira.

Lan hori 2018ko maiatzean eta ekainean egin du auditoriako bi teknikarik eta auditore batek osatutako lantalde batek, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoekin, informatikoekin eta administrazioekin lankidetzan.

Jarduketa honen emaitzak Nafarroako Gobernuako Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariari, NEKPko zuzendari nagusiari eta Sodenako zuzendari kudeatzaileari azaldu zaizkie, egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Epea iraganda, txostenari ez zaio alegaziorik aurkeztu.

Lan hau egiteko eman diguten laguntza eskertu nahi diegu Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko langileei, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoakoei (NEKP), Sociedad de Desarrollo de Navarrakoei (Sodena) eta menpeko gainerako erakunde publikoetakoei.

**II. 10/2014 FORU LEGEA, MAIATZAREN 16KOA, NAFARROAKO OGASUN PUBLIKOARI BURUZKO APIRILAREN 4KO 13/2007 FORU LEGEA ALDATZEN DUENA.**

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak (hemendik aurrera, OPFL), III. tituluari, finantza-eragiketen barruan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak (hemendik aurrera, NFKA) ematen dituen abalak eta maileguak arautzen ditu, bai eta haren menpeko erakundeek (enpresa-entitate publikoak, fundazio publikoak eta sozietate publikoak) ematen dituztenak ere.

2014ko maiatzaren 26an Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen maiatzaren 16ko 10/2014 Foru Legea, Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea aldatzen duena.

Foru lege horrek aldatu egiten ditu OPFLaren II. kapituluko ("Abalak") 75. artikuluko 1. eta 3. apartatuak, OPFLaren III. tituluari beste kapitulu bat gehitzen dio, "Nafarroako Ogasun Publikoak emandako maileguak" izenburukoa, eta kontabilitateari eta urteko kontuei buruzko hiru artikuluko aldatzen ditu, lan hau egitean eraginik ez dutenak.

Abalei dagokienez, 10/2014 Foru Legea onetsi aurretik OPFLak honako hau zioen:

- lege baimenduko zela abalak ematea.
- Nafarroako Aurrekontuei buruzko Foru Legeak (hemendik aurrera, NAFL) abalen gehieneko arrisku bizia ezarri behar zuela, eragiketa abalatuen printzipala erreferentzia hartuta, oro har, eta
- Parlamentuak berariaz baimena eman ezean, inongo pertsona fisiko edo juridiko ezin zela izan Aurrekontuei buruzko Foru Legean ezarritako gehieneko arrisku biziaren ehuneko bostetik gorako abalen onuradun.

Maileguei dagokienez, OPFLak ez zien inolako aipamenik egiten ez finantza-eragiketa horiei ez maileguak emateko baldintzei; beraz, Nafarroako Gobernuak askatasun osoa zuen haiek baimendu eta emateko.

Txosten honen ondorioetarako honela definitzen ditugu gehieneko bolumenaren eta gehieneko arrisku biziaren kontzeptuak:

- Gehieneko bolumena: NFKAk edo haren menpeko entitateek ekitaldi ekonomiko batean eman ditzaketen abal edo maileguen guztizko zenbatekoa.
- Gehieneko arrisku bizia: NFKAk edo haren menpeko entitateek eman ditzaketen abal eta maileguen guztizko zenbateko metatua. Gure azterketan, urte bakoitzeko abenduaren 31ra arte emandako abal eta maileguen gehieneko arrisku bizia hartu dugu kontuan.

Hauek dira 10/2014 Foru Legeak OPFLan egindako aldaketa nagusiak:

- Gehieneko arrisku bizia eta gehieneko bolumena

Maiatzaren 27tik aurrera, 10/2014 Foru Legak indarra hartuz geroztik, foru lege bidez baimendu behar da abalak zein maileguak ematea. OPFLak xedatu behar du abalek eta maileguek uneoro izanen duten gehieneko arrisku bizia, bai eta kasuan kasuko ekitaldian eman ahalko diren abal eta maileguen gehieneko bolumena ere, eta bi balio horiek bereiz zehaztuko ditu NFKArentzat, alde batetik, eta haren menpeko entitateentzat, bestetik.

Ulertuko da gehieneko arrisku bizia dagokiola eragiketa abalatuen printzipalari edo emandako maileguetatik kobratzeke dagoen printzipalari.

- Ehuneko bostetik gorako gehieneko arrisku bizia

Parlamentuak berariazko baimena eman ezean, inongo pertsona fisiko edo juridiko ezin izanen da izan NAFLan uneoro ezarritako gehieneko arrisku biziaren ehuneko bostetik gorako zenbatekoa duten abal edo maileguen onuradun, eta gehieneko arrisku hori entitate emailearen arabera aintzat hartuko da, hau da, NFKAk edo haren menpeko entitateek emanak izatearen arabera. Gehieneko portzentaje hori aintzat hartu behar da bai abal edo mailegu bat ematen denean, bai onuradunari emandako abalen guztizko kontaktetan edo emandako maileguen guztizko kontaktetan.

- Emandako maileguetarako berariazko baimena

Maileguei dagokienez, 10/2014 Foru Legeak hau gehitzen du: Parlamentuak berariazko baimena eman ezean, ezin izanen da xede jakin baterako mailegurik eman, funtsak lortu nahi den xederako erabiliko direla ziurtatzeko kontrol-mekanismorik jartzen ez bada. Inongo pertsona fisiko edo juridiko ezin izanen da izan NFKAk mailegu-hartzaile gisa formalizatutako azken zorpetze-eragiketako interes-tasaren ehuneko 50 baino interes-tasa txikiagoa duen mailegu baten onuradun edo printzipalaren amortizazio-gabealdia lau urtetik gorakoa duen mailegu baten onuradun.

Txosten honen 1. eranskinean jaso dira 10/2014 Foru Legeak OPFLan egindako aldaketa nagusiak.

### III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Lan honen helburua izan da, eskaera parlamentarioarekin bat etorriz, NFKAren eta haren menpeko entitateen jarduera aztertzea, 2014-2017 bitartean abalak eta maileguak ematean 10/2014 Foru Legea aplikatzeari dagokionez. Eta, zehatzago:

- Aztertzea ea 2014tik 2017ra bitartean arrekontuei buruzko foru legeak abal eta maileguen gehieneko arrisku biziaren eta gehieneko bolumenaren mugak ezarri ote dituzten, bi balio horiek bereiz zehatzuz, alde batetik NFKArentzat eta bestetik haren menpeko entitateentzat.

- Egiaztatzea ezarritako mugak ez direla gainditu abalak eta maileguak ematean.

- Egiaztatzea inongo pertsona fisiko edo juridiko ez dela izan gehieneko arrisku biziaren ehu-neko bostetik gorako zenbatekoa duten abal edo maileguen onuradun, Nafarroako Parlamentuak berariazko baimena eman ezean.

- Egiaztatzea araudi aplikagarrian gehieneko gabealdiari, interes-tasaren mugari eta xedeari buruz ezarritako baldintzak bete direla maileguak ematean.

- 10/2014 Foru Legearen aplikazioari dagokionez NFKAren eta haren menpeko entitateen jarduerak izan ditzakeen ondorioak aztertzea.

Gure lana egitean honako informazio hau aztertu dugu:

- Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legeak, batez ere 2014tik 2017ra bitartekoak, eta haien aldaketak.

- NFKAk eta haren menpeko erakundeek emandako abal eta maileguei buruz Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak, NEKPk eta Sodenak emandako informazioa.

- Nafarroako Gobernuak 2014ko eta 2015eko ekitaldietan eta Nafarroako Gobernuak eta sozietate publikoek 2016ko eta 2017ko ekitaldietan emandako abalen urteko saldoen gaineko txostenak, Ondare Zerbitzuak eginak.

- Nafarroako kontu orokorreari buruzko fiskalizazio-txostenak, Kontuen Ganberak emanak, eta NFKAren menpeko entitateen auditoriak eta oroitidazkiak, batik bat 2014-2017 urteei buruzkoak.

- Nafarroako Parlamentuko zerbitzu juridikoek 2018ko otsailaren 16an emandako txostena, OPFLa aldatzen duen 10/2014 Foru Legearen aplikazioaren inguruko zenbait gairi buruzkoa.

- Maiatzaren 30eko 10/2018 eta 11/2018 foru legeak, Sodena sozietate publikoak Parque de la Naturaleza de Navarra SA (Parquenas) eta Dynamobel SA sozietateekin 2014., 2015., 2016. eta 2017. urteetan egindako mailegu-eragiketak baliozkotzen dituztenak eta Sodenari baimena ematen diotenak onuradun horiei mailegu edota abal gehiago emateko 2018rako.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta, funtsean, ISSAI-ES 400 araua aplikatu da, betetzeari buruzko fiskalizazioen gainekoa.

#### IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako lanaren konklusio nagusiak aurkezten ditugu atal honetan, bai eta aztertutako legearen aplikazioari buruz egokitzen ditugun gomendioak ere.

##### IV.1. ABAL ETA MAILEGUEN GEHIENENKO ARRISKU BIZIA ETA GEHIENENKO BOLUMENA ZEHAZTEA

Abalak eta maileguak emateko, kontuan hartu behar dira bi muga: gehieneko arrisku bizia eta gehieneko bolumena. Bi muga horiek, lehen esan dugun moduan, NAFLan ezarri behar dira, eta bereiz zehaztu behar dira balio horiek, alde batetik NFKArentzat, eta bestetik haren menpeko entitateentzat, oro har.

Ondoren aztertuko ditugu aurrekontuei buruzko foru legeek 2014-2017 bitartean ezarri dituzten muga, bai NFKArenak bai haren menpeko entitateenak.

##### IV.1.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa

Abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legeak, 2012rako aurrekontu orokorrei buruzkoak, urte horretan NFKAk eman zitzakeen abalen gehieneko bolumena ezarri zuen, 40 milioi euro, eta Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuari baimena eman zion abalak emateko, muga hori gainditu gabe, ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuetarako<sup>1</sup> eta zailtasunak dituzten enpresen bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa sustatzeko proiektuetarako<sup>2</sup>. Gehienez ere 1,5 milioiko abala eman zezakeen proiektu bakoitzeko.

Beste alde batetik, aurrekontuei buruzko foru lege horrek ezarri zuen Nafarroako Gobernuak abalak eman ahal izanzen zizkiola Sodenari, Europako Inbertsio Bankuarekin (EIB) itundutako moduan<sup>3</sup>, gehienez ere 150 milioiko zenbatekoarekin 2012ko ekitaldian, eta Moderna Planaren barruan<sup>4</sup> baimena eman zezakeela, 2012ko ekitaldian, gehienez 100 milioi euroko zenbatekoarekin.

Adierazten zuen, halaber, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoen sektoreko entitateen aldeko abalak eman ahal izanzen zituela, gehienez ere 1,5 milioi euroko zenbatekoarekin, Kontuen Europako Sistemaren (KES) irizpideen arabera.

Aurrekontu horiek luzatu egin ziren 2013., 2014. eta 2015. urteetarako, eta abalak baimentzeari eta emateari buruzko lehengo baldintzek indarrean iraun zuten harik eta 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 1/2016 Foru Legea onetsi zen arte; horren indarraldia 2016ko otsailaren 2an hasi zen. Lege horrek aldatu egiten du Nafarroak eman ditzakeen abalen gehieneko bolumena eta 20 milioi eurora jaisten du horren muga, baina ez du ezartzen ez gainerako mugarik, ez maileguen gehieneko bolumenik, ezta abalen eta maileguen gehieneko arrisku bizirik ere.

Irailaren 19ko 11/2016 Foru Legeak aldatu eta sakondu egiten du 2016rako aurrekontuei buruzko foru legearen 15. artikulua, abalak eta maileguak emateari dagokionez, eta osatu egiten ditu, urte horretarako, 10/2014 Foru Legean exigitzen diren muga guztiak. Lehen aldiz zehazten dira NFKAk eman beharreko maileguen gehieneko bolumena (0,8 milioi) eta gehieneko arrisku bizia, bai abalena (190 milioi) bai maileguena (90 milioi).

Legeak berak adierazten du muga horien zenbaketatik aparte daudela honako hauek:

*“EIB-Moderna programaren esparruko eragiketak. Eragiketa horien gehieneko bolumena 65 milioi izan da, eta gehieneko arrisku bizia, aurreko urtekoa gehi 19,5 milioi”.*

Abenduaren 28ko 24/2016 Foru Legeak, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, OPFLan eskatutako parametro guztiak ezarri zituen urte horretarako, eta lehen aldiz denak xedapen

<sup>1</sup> Azaroaren 20ko 360/2000 Foru Dekretuaren arabera.

<sup>2</sup> Martxoaren 10eko 90/2011 eta irailaren 3ko 397/2012 foru aginduetan araututako laguntzak.

<sup>3</sup> EIBk Sodenari emandako mailegu baten bermea; maileguak enpresa txiki eta ertainen inbertsio proiektuak finantzatzea zuen helburu, guztira 250 milioiko zenbatekoarekin. 2012an 100 milioi formalizatu ziren, eta ez ziren gauzatu 2013rako aurreikusitako 150 milioiak.

<sup>4</sup> Enpresa txiki eta ertainen finantzaketa.

bakarrean ezarri ziren. Halaber, OPFLa aldatzen du, hirugarren xedapen gehigarria erantsiz, zeinak lege horretan ezarritako baimen eta errekerimenduen esparrutik kanpo uzten baititu Nafarroako Gobernuaren eta menpeko entitateen artean ekitaldi beraren barruan egiten eta ixten diren mailegu-eragiketak, bai eta menpeko entitateek elkarren artean egiten dituztenak ere.

Azkenik, 2016rako eta 2017rako aurrekontuei buruzko foru legeek hau ezartzen dute:

*“Mugen guztizko kontaketatik kanpo daude Nafarroako Gobernuaren eta bere sozietate publikoen artean nahiz sozietate publiko desberdinek elkarren artean egindako eragiketak, bai maileguenak bai abalenak”.*

Bestalde, 2018rako Aurrekontu Orokorrei buruzko 20/2017 Foru Legeak urte horretan abalak emateko gehieneko muga guztiak jasotzen ditu, eta kanpoan uzten ditu, aurrekontuei buruzko aurreko foru legeek bezala, Nafarroako Gobernuaren eta bere sozietate publikoen arteko abal eta maileguak nahiz sozietate publiko horien artekoak.

Laburbilduz, NFKAri abalak eta maileguak emateko ezarritako gehieneko mugak honako hauek dira (2014-2017):

(Euroak, milioitan)

Foru Komunitateko Administrazioa								
	2014/2015/2016 <sup>(1)</sup>		2016				2017	
	Gehieneko bolumena	Gehieneko arrisku bizia	Gehien. bol. <sup>(2)</sup>	Gehien. ar. bizia	Gehien. bol.	Gehien. ar. bizia <sup>(3)</sup>	Gehieneko bolumena	Gehieneko arrisku bizia
Abalak	40	-	20	-	20	190	20	42
Maileguak	-	-	-	-	0,8 <sup>(3)</sup>	90	-	61

(1) 2016-2-1era arte.

(2) 2016-2-2tik 2016-10-2ra. 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 1/2016 FL.

(3) 2016-10-3tik aurrera. 11/2016 FL, 2016rako Aurrekontuei buruzko Foru Legea aldatzen duena.

#### IV.1.2. Menpeko entitateak

Menpeko entitateen kasuan, urriaren 28ko 19/2014 Foru Legeak, 10/2014 Foru Legea aldatzekoak, baimena eman zuen sozietate publikoek abalak eta maileguak eman zituzten, eta gehieneko bolumenaren eta gehieneko arrisku biziaren mugak ezarri zituen behin-behinean, maiatzaren 26ko 10/2014 Foru Legea betez aurrekontuei buruzko foru lege batek balio horiek onesten ez zituen bitartean.

2014ko ekitaldirako mugak ezartzeaz gain (azarotik aurrerakoak), hurrengo ekitaldietarako, abal eta maileguetako gehieneko arrisku bizia aurreko ekitaldiaren amaieran izandako gehieneko arrisku biziari hurrenez hurren 15 milioi eta 30 milioi gehitzearen emaitza izanen zela xedatu zuen. 2016ko urritik aurrera, abalen gehieneko arrisku bizia kalkulatzeko, 50 milioi gehituko zaizkio aurreko urteko arriskuari, irailaren 19ko 11/2016 Foru Legea aplikatuta.

Azkenik, NFKAren kasuan bezala, 2017rako eta 2018rako aurrekontuei buruzko foru legeek gehieneko arriskuaren eta bolumenaren parametro guztiak ezartzen dituzte urte horietarako, eta gehieneko mugen guztizko zenbaketatik kanpo uzten dituzte sozietate publikoen arteko eragiketak.

Laburbilduz, menpeko entitateek abalak eta maileguak emateko gehieneko mugak honako hauek dira (2014-2017):

(Euroak, milioitan)

Menpeko entitateak														
	2014				2015		2016					2017		
	Gehien. bol. <sup>(1)</sup>	Gehien. ar. bizia <sup>(1)</sup>	Gehien. bol. <sup>(2)</sup>	Gehien. ar. bizia <sup>(2)</sup>	Gehien. bol.	Gehien. ar. bizia	Gehien. bol.	Gehien. ar. bizia	Gehien. bol.	Gehien. ar. bizia <sup>(4)</sup>	Gehien. bol.	Gehien. ar. bizia		
Abalak	-	-	15	185	15	168	15	135	50 <sup>(3)</sup>	135	50	170	30	140
Maileguak	-	-	30	180	30	169	30	170	30	170	30	170	55	158

(1) 2014-5-27tik. 10/2014 FL.

(2) 2014-11-13tik. 19/2014 FL.

(3) 2016-2-2tik. 1/2016 FL, 2016rako Aurrekontuei buruzkoa.

(4) 2016-10-3tik. 11/2016 FL.



Txosten honen 2. eta 3. eranskinetan xehakatuta ageri dira NFKAk eta menpeko entitateek 2014-2017 bitartean abalak eta maileguak emateko izan dituzten gehieneko mugak, bolumenarenak zein arrisku biziarenak.

Horrenbestez, aurreko bi atalak aztertuta, ondorio gisa esan dezakegu abenduaren 28ko 24/2016 Foru Legeak, 2017rako Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzkoak, ez zituela xedapen bakar batean bildu abalak eta maileguak emateko finantza-eragiketarako beharrezkoak diren parametro guztiak. Ordura arte, 2012rako Aurrekontuei buruzko Foru Legearen luzapenaren eta mugen arauketa osatu gabearen ondorioz, indarrean iraun zuten lehenagoko araudietan ezarritako parametro batzuek, eta horiek zaildu egiten dute une bakoitzean zer muga dauden indarrean jakitea.

Horren guztiaren ondorioz, 2016ko urrira arte muga bakarra egon zen NFKAk abalak emateko, gehieneko bolumenaren muga, hain zuzen. 2014ko azaroaz geroztik, badira, izan, menpeko entitateek abalak eta maileguak emateko muga guztiak, baina horiek urriaren 29ko 19/2014 Foru Legearen xedapen iragankorraren aplikazioaren emaitza dira. Foru lege horrek aldatu egiten du 10/2014 Foru Legea, zeinak sozietate publikoen finantza-eragiketak bakarrik arautzen baitzituen.

#### IV.2. ABALAK EMATEAN MUGAK BETETZEA

NFKAk eta haren menpeko entitateek abalak ematen dizkiete pertsona fisiko edo juridikoei, publikoak nahiz pribatuak izan, ituntzen dituzten kreditu eragiketetatik sortutako betebeharrak bermatzeko.

2016rako Aurrekontuei buruzko Foru Legeak OPFLa aldatzen du eta adierazten du abaltzat hartuko direla abal eta berrabal eragiketak edo beste edozein berme, barnean direla konpromiso gutunak, berekin dakartenak NFKAk arriskuak bere gain hartzea.

Atal honetan, NFKAk eta haren menpeko entitateek emandako abalak aztertzen ditugu honako muga hauek bete diren erreparatuta:

- urte bakoitzean emandako abalek urte horretarako ezarritako gehieneko bolumena ez gainditzea,
- emandako abalek, guztira, abenduaren 31n ez gainditzea egun horretako gehieneko arrisku bizia, eta
- inongo onuradunek ez gainditzea gehieneko arrisku biziaren ehuneko bost, Parlamentuaren berariazko baimena izan ezean.

Gure azterketatik kanpo utzi ditugu, 2016. urtean, EIB-Moderna programako eragiketak, eta 2016. eta 2017. urteetan, NFKAren eta bere sozietate publikoen arteko abalak, bai eta sozietate horiek elkarri emandakoak ere, zeren eta, adierazi dugun bezala, urte horietako aurrekontuei buruzko legeek berariaz uzten baitituzte eragiketa horiek mugen guztizko zenbaketatik kanpo.

**IV.2.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa**

NFKAk 2014-2017 bitarteko urteetan emandako abalak eta konpromiso gutunak eta abenduaren 31ko saldo biziak honako taula honetan ageri dira:

NFKAk EMANDAKO ABALAK									
Entitateak	Saldo bizia 2013/12/31	2014ko altak	Saldo bizia 2014/12/31	2015eko altak	Saldo bizia 2015/12/31	2016ko altak	Saldo bizia 2016/12/31	2017ko altak	Saldo bizia 2017/12/31
Ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuak	559.773		228.952		209.475		163.400		117.055
Zailtasunak dituzten enpresak eta inbertsiorako laguntza	12.076.047		8.593.177		6.803.906		4.958.016		3.537.623
"Nafarroa Abala" programa <sup>(1)</sup>	4.632.885		3.858.771		3.678.831		2.940.240		2.653.404
Club Atlético Osasuna	8.414.169		7.212.145	4.000.000	11.212.200		11.212.200		10.787.415
NICDO. Circuito de Los Arcos	28.269.231		25.576.923		22.884.615				
SODENA. EIB <sup>(2)</sup>	102.921.778		102.763.981		102.953.282				
NUP. Iberus programa	931.961		859.169		785.526				
Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroa (CRANA)		500.000	500.000		500.000				
Konpromiso gutunak, Ciudad Agroalimentaria Tudela (CAT) <sup>(3)</sup>	53.000.000	42.000.000	42.000.000		30.600.000				
Abalak eta konpromiso gutunak, gutzira	210.805.844	42.500.000	191.593.118	4.000.000	179.627.835		19.273.856		17.095.497
Gehien. bolumenaren muga		40.000.000		40.000.000		20.000.000		20.000.000	
Gehieneko arrisku biziaren muga			-		-		190.000.000		42.000.000
Gehien. ar. biziaren % 5eko muga onuraduneko			-		-	9.500.000	9.500.000	2.100.000	2.100.000

(1) 18/2008 FLak ekonomia indarberritzeko onetsitako neurriak (2009-2011).

(2) Sodenari emandako abalak 100 milioiko mailegu baten printzipala eta interesak bermatzen ditu EIB - Europako Inbertsio Bankuarekin itundutako baldintzetan.

(3) NOPFLaren 74. artikulua, 2016ko NAFLak aldatua: abaltzat hartuko dira abal eta berrabal eragiketak edo beste edozein berme, barnean direla konpromiso gutunak, berekin dakartenak NFKAk arriskuak bere gain hartzea

- NFKAk ez du abalik eman aurrekontuei buruzko legeetan ezarritako gehieneko bolumenaren gaitetik (40 milioi 2014an eta 2015ean eta 20 milioi hurrengo bi urteetan). Adierazi behar dugu jada bazegoela 40 milioiko muga Tuterako Nekazaritzako Elikagaien Hiririari (CAT) konpromiso gutunak eman zitzaizkionean, 10/2014 Foru Legea indarrean jarri aurretik<sup>5</sup>; baina konpromiso gutunak, gorago azaldu dugunez, 2016ra arte ez ziren abaltzat hartzen.

- 2014. eta 2015. urteetan ez zen zehaztu abalen gehieneko arrisku biziaren mugarik, eta horren arrazoi nagusia izan zen urte horietan luzatu egin zirela 2012ko aurrekontuak. 2016ko urrian 190 milioiko muga ezarri zen urte horretarako, eta 42 milioira jaitsi zen 2017. urterako; bietan ere guztizko zenbaketatik kanpo utzi ziren Nafarroako Gobernuaren eta bere sozietate publikoen arteko abalak.

Bi urte horietan ez zen gainditu gehieneko arrisku biziaren muga, zeren eta, goiko taulan ageri denez, 2016ko eta 2017ko abenduaren 31n emanda zeuden abalak 19,3 milioi eurokoak eta 17,1 milioi eurokoak baitziren, hurrenez hurren.

<sup>5</sup> Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legean ezarritako muga.

- Inongo onuradunek ez du gehieneko arrisku biziaren ehuneko bost gaintitu urteko zenbatekoan. Izan ere, 2014an eta 2015ean ez zen mugarik egon, eta 2016an eta 2017an, hurrenez hurren 9,5 milioiko eta 2,1 milioiko muga egon arren, NFKAk ez zuen abalik eman.

- Club Atlético Osasunak, 2016. eta 2017. urteetan, gaintitu egin zuen, bere guztizko zenbateko metatuan, gehieneko arrisku biziaren ehuneko bosteko muga, foru lege bidez 2003an onetsitako abalekin, hots, Parlamentuak behinola berariaz baimendutako abalekin.

#### IV.2.2. Menpeko entitateak

2014-2017 aldian, sozietate publikoek, SODENAK izan ezik, ez diete abalik eman ez hirugarrenei ez beste entitate publiko batzuei. Gainera, 2014 aurretik emandako abal batek ere ez du saldo bizirik izan aztertutako aldiko urteetako abenduaren 31n.

#### Sociedad de Desarrollo de Navarra (Sodena)

Sodenak 2014tik 2017ra bitarteko urteetan emandako abal nagusiak taula honetan jaso dira:

SODENAK EMANDAKO ABALAK								
Entitateak	2014ko altak	Saldo bizia 2014/12/31	2015eko altak	Saldo bizia 2015/12/31	2016ko altak	Saldo bizia 2016/12/31	2017ko altak	Saldo bizia 2017/12/31
1. entitatea	-	24.999.600	-	18.999.600	-	15.199.680	-	-
2. entitatea	-	15.000.000	-	15.000.000	-	15.000.000	-	15.000.000
3. entitatea	1.039.256 <sup>(1)</sup>	11.039.256	49.489 <sup>(1)</sup>	11.088.745	-	7.062.354	-	7.062.354
4. entitatea	-	10.011.812	-	9.108.148	-	8.887.494	-	5.483.850
Beste onuradun batzuk	2.775.369	89.620.192	1.422.435	54.824.504	4.498.806	42.949.487	4.250.742	47.099.943
<b>Abalak, guztira Sodena</b>	<b>3.814.625</b>	<b>150.670.860</b>	<b>1.471.924</b>	<b>118.520.797</b>	<b>4.498.806</b>	<b>96.698.853</b>	<b>4.250.742</b>	<b>74.646.146</b>
Gehieneko bolumenaren muga	15.000.000	-	15.000.000	-	15.000.000 <sup>(2)</sup>	-	30.000.000	
Gehieneko arrisku biziaren muga		185.000.000		167.943.985		135.019.522		140.000.000
Gehien. ar. biziaren % 5eko muga onuraduneko	9.250.000	9.250.000	8.397.199	8.397.199	6.750.976	6.750.976 <sup>(3)</sup>	7.000.000	7.000.000

<sup>(1)</sup> Sodenak finantza-entitateen aurrean abalaturako kreditu-kontuetako erabilerak

<sup>(2)</sup> Muga 50 milioikoa da 2016-2-2tik aurrera

<sup>(3)</sup> Urritik aurrera hauek dira mugak: 170.019.522 euro eta 8.500.976 euro

- Sodena sozietate publikoak ez du gaintitu urtean emandako abalen gehieneko bolumena: urtean 15 milioi euro 2014an eta 2015ean, 50 milioi euro 2016an eta 30 milioi euro 2017an.

- Urteko gehieneko arrisku biziaren muga ere (135-185 milioi euro bitarte) ez da gaintitu aztertutako urte edo aldietan.

- Azkenik, inongo onuraduni ez zaio eman, emate batean nahiz gehiagotan, gehieneko arrisku biziaren ehuneko bostetik gorako zenbatekoa duen abalik.

Nabarmendu behar dugu 2014ko maiatzean, gehieneko arrisku biziaren ehuneko bosteko muga indarrean jarri zenean, bazirela lau entitate, orduan ezarrita zegoen 9,25 milioiko mugatik gorako guztizko zenbateko metatua zutenak abaletan. Entitate horiei emandako abal guztiak 10/2014 Foru Legea indarrean jarri baino lehen baimenduak ziren, eta entitateetako bati ere ez zitzaion abal gehiago eman aztertutako aldian.

2017ko abenduaren 31n, onuradun horietako bik 15 milioiko eta 7,06 milioiko zenbatekoak zizuten metatuak abaletan, 2017rako ezarritako zazpi milioiko mugatik gorakoak; esan dugunez, abal horiek 10/2014 Foru Legea indarrean jarri baino lehen emanak ziren.

### IV.3. MUGAK BETETZEA MAILEGUAK EMATEAN

13/2007 OPFLak ez zuen arautu maileguak ematea, ez NFKAren maileguak ez menpeko erakundeak. 10/2014 Foru Legeak IV. kapitulu berria gehitu zuen, emandako maileguei buruzkoa; eta 19/2014 Foru Legeak, aurrekoa aldatu zuenak, maileguak emateko mugak ezarri zituen, baina sozietate publikoentzat bakarrik.

Atal honetan, NFKAk eta haren menpeko entitateek emandako maileguak aztertzen ditugu honako muga hauek bete diren erreparatuta:

- urte bakoitzean emandako maileguak urte horretarako ezarritako gehieneko bolumena ez gainditzea.
- emandako maileguak, guztira, abenduaren 31n ez gainditzea egun horretako gehieneko arrisku bizia, eta
- inongo onuradunek ez gainditzea gehieneko arrisku biziaren ehuneko bost, Parlamentuaren berariazko baimena izan ezean.

Horrez gain, araudian ezarritako gabealdiaren, interes-tasaren eta xedearen baldintzak bete diren aztertu dugu.

Maileguen azterketatik kanpo utzi ditugu, 2016. urtean, EIB-Moderna programako eragiketak, eta 2016. eta 2017. urteetan, NFKAren eta bere sozietate publikoen arteko maileguak eta sozietate horiek elkarri emandakoak, aurrekontuei buruzko legeek espresuki eragiketa horiek kanpoan uzten dituztelako.

Beste alde batetik, maileguak emateko gehieneko mugak gainditu diren ala ez aztertzean, ez ditugu kontuan hartu NFKAren eta bere sozietate publikoen arteko eragiketak, elkarren artekoak edo hirugarrenenak, baldin eta, maileguen antzeko ezaugarriak eta kontabilitateko tratamendua izan arren, ezin badira juridikoki halakotzat kalifikatu (ordainketa geroratuko salmentak eta abar).

#### IV.3.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa

NFKAk 2014-2017 bitarteko urteetan emandako maileguak eta abenduaren 31ko saldo biziak honako hauek dira:

NFKAk emandako maileguak									
Entitateak	Saldo bizia 2013/12/31	2014ko altak	Saldo bizia 2014/12/31	2015eko altak	Saldo bizia 2015/12/31	2016ko altak	Saldo bizia 2016/12/31	2017ko altak	Saldo bizia 2017/12/31
Canal de Navarra SA (CANASA)	0	8.500.000	8.500.000	8.500.000	17.000.000	8.500.000	25.500.000	9.350.000	34.850.000
Baluarte Fundazioa						800.000	800.000		800.000
Beste enpresa publiko batzuei	1.808.882		1.636.737		1.501.137				
Toki korporazioei	14.087.207		13.096.854		2.238.211		1.850.196		1.414.004
Enpresa pribatuei	3.263.862		2.597.324		1.951.306		1.984.775		1.559.472
Familiei eta enpleguari	3.274.208		3.136.569		2.918.259		1.950.000		1.800.000
<b>Maileguak, guztira</b>	<b>22.434.159</b>	<b>8.500.000</b>	<b>28.967.484</b>	<b>8.500.000</b>	<b>25.608.913</b>	<b>9.300.000</b>	<b>32.084.971</b>	<b>9.350.000</b>	<b>40.423.476</b>
Gehieneko bolumenaren muga		-		-		800.000		-	
Gehieneko arrisku biziaren muga			-		-		90.000.000		61.000.000
Gehien. ar. biziaren % 5eko muga onuraduneko			-		-	4.500.000	4.500.000	3.050.000	3.050.000

- Aurrekontuei buruzko foru legeetan ez da gehieneko bolumenaren mugarik ezartzen NFKAk ematen dituen maileguetarako, 2016rako Aurrekontuei buruzko Foru Legean izan ezik, hor berariaz jasotzen baita Nafarroako Gobernuak gehienez ere 800.000 euroko maileguak eman ahal dizkiola Baluarte Fundazioari.

2014-2017 bitartean eman diren bi maileguak aztertu ditugu.

a) Alde batetik, azaroaren 26ko 35/2013 Foru Legeak urte anitzeko 77 milioi euroko gastua onetsi zuen, Canasa<sup>6</sup> sozietate publikoari "Nafarroako Ubidearen etorkizuneko erabilerak" kontzepturako ematea hitzartua zegoen diru-aurrerakinaren ondoriozko finantza-beharrizanei aurre egiteko. Nafarroako Gobernuaren konpromisoa, Gobernuaren 2014ko uztailearen 25eko Erabakiaren bidez onetsia, 2013tik 2026ra bitartean gauzatuko da, eta itzulketa, berriz, 2027tik 2040ra bitartean, urtean ehuneko hiruko interesa sorrarazita. 2017ra arte 34,85 milioi euro eman zaizkio Canasari.

Nabarmendu nahi dugu, kasu honetan 2016an eta 2017an gehieneko arriskuaren ehuneko bosteko muga gainditu bada ere ordura arte metatutako maileguengatik, ez dela beharrezkoa Parlamentuaren berariazko baimena, aurrerakinak foru lege bidez eman direlako eta foru lege horrek jada emate hori baimendu duelako 10/2014 Foru Legean ezarritako mugak indarrean jarri aurretik.

b) Baluarte Fundazioari emandako mailegua, bestalde, 2016rako Aurrekontuei buruzko Foru Legean baimendu zen. Gobernuaren 2016ko azaroaren 9ko Erabakiaren bidez onetsi zen mailegu hori, fundazioak Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren funtzionamendu eta jarduera gastuak finantza zitzaiz, bi urteko gabealdiarekin eta ehuneko hiruko interesarekin. Maileguak emateko ezarritako betekizunak bete ziren.

- 2014. eta 2015. urteetan ez zen gehieneko arrisku biziaren mugarik izan. Muga hori 2016. urterako 90 milioikoa izan zen, eta 2017. urterako 61 milioikoa. Aurreko bi urteetan NFKAk emandako maileguek ez zituzten zenbateko horiek gainditu.

<sup>6</sup> Sozietate horretan Estatuak % 60ko partaidetza du eta Nafarroako Gobernuak % 40koa.

### IV.3.2. Menpeko entitateak

Menpeko entitateek 2014-2017 aldian emandako maileguak eta abenduaren 31ko saldo biziak honako hauek dira:

MENPEKO ERAKUNDEEK EMANDAKO MAILEGUAK										
Sozietatea	Onuraduna	Saldo bizia 2013/12/31	2014ko altak	Saldo bizia 2014/12/31	2015eko altak	Saldo bizia 2015/12/31	2016ko altak	Saldo bizia 2016/12/31	2017ko altak	Saldo bizia 2017/12/31
NEKP	CEIN			3.100.000		1.600.000				
INTIA	Hainbat- Ureztatzai- leak			1.294.355		1.245.516		1.210.202		1.088.944
Nasuvinsa	Natural Climate System SL (MIYABI)		190.000	298.463						
NICDO	NEKP			700.000						
<b>MEak, GUZTIRA</b>			190.000	5.392.818		2.845.516		1.210.202		1.088.944
SODENA	Potasas Subiza SAU	8.232.498		8.232.498	883.000	8.232.498				
	Parquenasa	55.427.151	1.758.095	57.185.245	2.099.631	59.284.876	2.159.698	61.444.575	2.445.576	63.890.151
	DYNAMO- BEL	10.000.000		10.000.000		10.000.000	4.796.945	14.795.417	2.000.000	16.795.417
	EIB maile- guak	30.504.929	8.162.908	33.035.201	10.074.466	36.495.730			9.473.940	32.353.393
	Sodenaren gainerako maileguak	29.841.547	1.690.262	25.356.892	2.153.847	23.367.723	675.694	18.537.150	2.694.495	22.295.603
	Sodena, guztira	134.006.125	11.611.265	133.809.836	15.210.944	137.380.828	7.632.337	94.777.142	16.614.011	135.334.564
	ME-en maileguak, guz- tira	134.006.125	11.801.265	139.202.654	15.210.944	140.226.344	7.632.337	95.987.344	16.611.911	136.423.508
	<b>Gehien. bolumenaren muga</b>		<b>30.000.000</b>		<b>30.000.000</b>		<b>30.000.000</b>		<b>55.000.000</b>	
	<b>Gehieneko arrisku biziaren muga</b>			<b>180.000.000</b>		<b>169.202.654</b> 4		<b>170.226.344</b>		<b>158.000.000</b>
	<b>Gehien. ar. biziaren % 5eko muga onura- duneko</b>		<b>9.000.000</b>	<b>9.000.000</b>	<b>8.466.183</b>	<b>8.466.183</b>	<b>8.517.317</b>	<b>8.511.317</b>	<b>7.900.000</b>	<b>7.900.000</b>

- Maileguak ematean sozietate publikoek ez dituzte gainditu urteko gehieneko bolumenaren mugak (30 milioi 2014an, 2015ean eta 2016an eta 55 milioi 2017an).

- Urteko gehieneko arrisku biziaren muga, 2014ko 180 milioien eta 2017ko 158 milioien artekoa, ez da gainditu aztertutako urteetan. 2016. urtean, gehieneko mugaren —170,3 milioi— eta gehieneko arrisku biziaren —96 milioi— artean bazegoen aldea abenduaren 31n, EIB-Moderna programaren bidez emandako maileguak beren muga propioak zituztelako: urteko gehieneko bolumena 65 milioikoa zen, eta gehieneko arrisku bizia, aurreko urtekoa gehi 19,5 milioi. Muga horietako bat ere ez zen gainditu 2016ko ekitaldian.

- 2014tik 2017ra bitartean, sozietate publikoek ez dute eman urte bakoitzeko gehieneko arrisku biziaren ehuneko bost gainditzen duen mailegurik.

2014ko azaroan, bi enpresa, Parquenasa eta Dynamobel SA, maileguen mugak indarrean jarri aurretik Sodenak emandako maileguen onuradunak ziren, 57,2 milioi euroko eta 10 milioi euroko zenbatekoekin; zenbateko horiek gainditu egiten zuten 19/2014 Foru Legeak, sozietate publikoek maileguak emateko parametroak arautu zituenak, 2014. urterako ezarritako gehieneko arrisku biziaren ehuneko bosta (9 milioi).

Ordutik aurrera bi onuradun horiei mailegu gehiago eman ahal izateko, Sodena sozietate publikoak berariazko baimena eskatu behar zion Parlamentuari, araudi berriari jarraituz. Sodenak ez zuen 2018. urtera arte eskatu baimen hori. Une hartan, maiatzaren 30eko 10/2018 eta

11/2018 foru legeen bidez, baliozkotu egin ziren Sodenak 2014ko, 2015eko, 2016ko eta 2017ko ekitaldietan Parquenasarekin eta Dynamobel SArekin formalizatutako mailegu-eragiketak.

Foru lege beretan baimena eman zen Parquenasarekin eta Dynamobel SArekin mailegu-edota abal-eragiketa gehiago egiteko, gehienez 2,5 eta 3 milioi euroraino, hurrenez hurren, 2018. urterako.

- Sodenak 2014-2017 bitartean EIB-Moderna programatik kanpo emandako maileguek gutxi gorabehera 21 milioi euro jo zuten, eta taula honetan jaso dira:

	2014	2015	2016	2017	Guztira
Abalak mailegutzea	488.695	244.347	5.227.639	244.347	6.205.028
Mailegu arrunta	205.786	960.000		2.000.000	3.165.786
Partaidetza-mailegua	2.753.877	3.932.131	2.404.698	2.895.724	11.986.430
<b>Guztira</b>	<b>3.448.357</b>	<b>5.136.478</b>	<b>7.632.337</b>	<b>5.140.071</b>	<b>21.357.244</b>

Aztertu dugu ea aipatutako betekizunak bete diren mailegu horietan, hots:

a) Maileguaren xedea.

Partaidetza-maileguak sozietate publikoak zuzenean emandako maileguen ehuneko 56 dira; ehuneko 29 erabili dira bi enpresaren abalak mailegutzeko; eta mailegu aurruntak ehuneko 15 dira.

b) Gehienez lau urteko gabealdia.

Mailegu guztiek zazpi hilabete eta bi urte bitarteko gabealdia dute, Dynamobel SA enpresari 2016an emandako 4,8 milioiko abal bat mailegu bihurtzeak izan ezik; eragiketa horrek 15 urteko gabealdia du, eta ordainketa bakarra izanen du muga-egunera iristen denean, 2031n. Eragiketa hori maitzaren 30eko 11/2018 Foru Legeak baliozkotu du, sozietate horrekiko maileguak erregulartzatzen dituen foru legeak, hain zuzen.

c) Interes-tasa

Hitzartutako interes-tasa, kasu guztietan, NFKAk bere azken zorpetze-eragiketa formalizatzean aplikatua zuen interes-tasaren ehuneko 50etik gorakoa izan da.

#### IV.4. 10/2014 FORU LEGEAREN APLIKAZIOARI DAGOKIONEZ NFKAREN ETA HAREN MENPEKO ENTITATEEN JARDUERAK IZANDAKO ONDORIOAK

Legez finkatutako muga horiek gainditzeak zer ondorio sortu ahal izan dituen aztertzeari dagokionez, Parlamentuko zerbitzu juridikoek jada gai horri buruzko iritzia azaltzeko aukera izan zuten 2018ko otsailaren 16ko txostenean. Orduan adierazi zuten betekizun horietakoren bat ez betetzea akatsa dela, eta zuzendu egin behar dela, segurtasun juridikoaren printzipioak eta ukitutako hirugarrenen eskubideak ez kaltetzeko, eta gu ados gaude irizpide horrekin.

Txosten horrek zioen, zehazki, ukitutako eragiketen gaineko parlamentu-kontrolari berriz ekin behar zitzaiola, Parlamentuaren baimenik gabe emandako abal eta maileguak barruan hartuko zituen foru lege baten proiektua izapidetuz. Horrela, egindako eragiketen gaineko parlamentu-kontrol hori berrezarriko zen, eta segurtasun juridikoa emanen litzaietxe ukitutako onuradunekin jada formalizatutako kontratu pribatuei.

Horixe da Nafarroako Gobernuak eta Parlamentuak jarraitutako irizpidea. Parlamentuak maitzaren 30eko 10/2018 eta 11/2018 foru legeak onetsi ditu, eta, horien bidez, ukitutako bi enpreseien zenbait mailegu eta abal ematea baimendu eta baliozkotu dio Sodenari.

#### IV.5. AMAIERAKO KONKLUSIOA ETA GOMENDIOAK

**Azken batean**, Ganbera honen ustez, aurrekontuei buruzko foru legeek ez dituzte ezarri, 2017rako Aurrekontu Orokorrei buruzko 24/2016 Foru Legea arte, ekitaldi bakoitzean NFKAk eta haren menpeko entitateek eman beharreko abal eta maileguen gehieneko bolumenaren eta gehieneko arrisku biziaren muga guztiak, nahiz eta kontrakoa agindu maiatzaren 16ko 10/2014 Foru Legeak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea aldatzen duenak.

2014-2017 bitartean, Foru Komunitateko Administrazioak bete egin ditu abal eta maileguak emateko ezarritako mugak. Muga horiek gainditu diren kasuetan, abal edo maileguak 10/2014 Foru Legea indarrean jarri baino lehen onetsiak ziren, haiek onartu eta ematea berariazko foru lege baten bidez baimendua zen, edo onuradunak sozietate publikoak ziren, finantza-eragiketen mugen guztizko zenbaketatik kanpo zeudenak 2016az gozotik.

Menpeko entitateek, Sodenak izan ezik, ez dute abalik eman aztertutako aldian, eta eman dituzten maileguetan araudiak ezarritako mugak bete dituzte.

Sodenak eman dituen abalek ez dituzte gainditu gehieneko arrisku biziaren eta bolumenaren urteko mugak. Aztertutako aldian, zenbait onuradunek ezarritako gehieneko arrisku biziaren ehuneko bosta gainditu dute noizbait, baina 10/2014 Foru Legea indarrean jarri baino lehen emandako abalak ziren.

Maileguei dagokienez, sozietate publikoak eman dituen maileguek ez dituzte gehieneko bolumenaren muga gainditu aztertutako urteetan. Gehieneko arrisku biziaren mugatik gorako mailegurik ere ez da eman. Alabaina, bi onuradunek muga horren ehuneko bosta gainditzen zuten 10/2014 Foru Legea indarrean jarri zen unean, 10/2014 Foru Legearen aurretik emandako maileguekin; hurrengo urteetan mailegu gehiago eman zitzaizkienean, ez zen bete aipatutako foru legea, ez zitzaiolako Parlamentuari berariazko baimenik eskatu mailegu horiek emateko.

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko maiatzean eta Sodena sozietate publikoak hala eskatuta, foru legeen bidez baliozkotu du onuradun horiei emandako kredituen guztizkoa, eta sozietateari baimena eman dio 2018. urtean onuradun berekin mailegu- edota abal-eragiketak egiteko.

Atera ditugun ondorio horiek ikusirik, hauexek dira gure aholkuak:

- *Aztertzea ea komeni den OPFLan jasotzea ezarritako mugen zenbaketatik kanpo utzi behar direla NFKAk bere sozietate publikoekin eta horiek elkarrekin hitzartzen dituzten abal- eta mailegu-eragiketak, urtero kanpo uzten baitira aurrekontuei buruzko foru legeetan. Hala eginez gero, indarrik gabe utzi behar litzateke OPFLaren hirugarren xedapen gehigarria, ez lukeelako zentzurik izan.*

- *Urtero ematen diren abal eta maileguen zenbatekoa egiaztatzea, ezarritako gehieneko bolumenaren mugak ez gainditzeko.*

- *Egiaztatzea emandako abal eta maileguen benetako saldo biziak inoiz ez dituela gainditzeko urteko gehieneko arrisku biziaren mugak.*

- *Abal eta maileguak emateko baimena eskatzea Nafarroako Parlamentuari, baldin eta onuradunak gehieneko arrisku biziaren ehuneko bosta gainditzen badu emate batean edo gehiagotan, urte batean edo gehiagotan.*

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Carmen Azcona Díez de Ulzurrun andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2018ko irailaren 3an

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga



**1. ERANSKINA OPFLAREN 75. ARTIKULUAREN ETA IV. KAPITULUAREN TESTUA, 10/2014 FORU LEGEA INDARREAN JARRIZ GEROZTIK**

Maiatzaren 16ko 10/2014 Foru Legeak 75. artikulua aldatu du, eta honela idatzita gelditu da:

75. artikulua. Legezko gaikuntza.

1. Foru lege baten bidez baimendu beharko da abalen ematea. Horretarako, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak ezarriko du abalek uneoro izan dezaketen gehieneko arrisku bizia, bai eta kasuko ekitaldian eman ahal izanen diren abalen gehieneko zenbatekoa ere, bi balio horiek bereiz finkatuta Nafarroako Foru Komunitateko Foru Administrazioarentzat, batetik, eta, bestetik, haren menpeko entitateen multzoarentzat —enpresa-entitate publikoak, fundazio publikoak eta sozietate publikoak—.
2. Ulertuko da aurreko idatz-zatian aipatzen den gehieneko arrisku bizia abalaturiko eragiketen printzipalari dagokiola. Salbu eta aurrekontuei buruzko foru legeak edo abala ematekoak espresuki bestela adierazten badu, ematen den abalak bakarrik printzipalaren ordainketa bermatzen ahalko du.
3. Parlamentuak berariazko baimena eman ezean, inongo pertsona fisiko edo juridiko ezin izanen da izan aipatutako Aurrekontuei buruzko Foru Legean ezarritako gehieneko arrisku biziaren ehuneko 5etik gorako zenbatekoa duten abalen onuradun. Gehieneko arrisku bizia entitate emailearen arabera aintzat hartuko da, hau da, abalak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren menpeko entitateek emanak izatearen arabera.

Bestalde, II. tituluari, abalen gainekoari, IV. kapitulua gehitzen dio:

**IV. KAPITULUA. Nafarroako Ogasun Publikoak emandako maileguak**

82. bis artikulua. Emandako maileguak.

*Foru Komunitateak eta haren mendeko entitateek —enpresa-entitate publikoak, fundazio publikoak eta sozietate publikoak—, kapitulu honetan ezarritakoarekin bat, funtsak utzi ahalko dizkiete maileguan pertsona fisikoei edo juridikoei, publiko nahiz pribatuei, kasuan kasuko mailegu-kontratua eginenez.*

82. ter artikulua. Legezko gaitasuna.

1. Foru lege baten bidez baimendu beharko da mailegu-ematea. Horretarako, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak ezarriko du uneoro maileguek uneoro izan dezaketen gehieneko arrisku bizia, bai eta kasuko ekitaldian eman ahal izanen den gehieneko mailegu-bolumena ere, bi balio horiek bereiz finkatuta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarentzat, batetik, eta haren menpeko entitateen multzoarentzat —enpresa-entitate publikoak, fundazio publikoak eta sozietate publikoak—, bestetik.

*Ukertuko da aurreko lerrokadan aipatzen den gehieneko arrisku bizia dagokiola emandako maileguetatik kobratzeke dagoen printzipalari.*

2. Parlamentuak berariazko baimena eman ezean, inongo pertsona fisiko edo juridiko ezin izanen da izan aipatutako Aurrekontuei buruzko Foru Legean ezarritako gehieneko arrisku biziaren ehuneko 5etik gorako zenbatekoa duten maileguen onuradun. Gehieneko arrisku bizia entitate emailearen arabera aintzat hartuko da, hau da, maileguak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren menpeko entitateek emanak izatearen arabera.

3. Parlamentuak berariazko baimena eman ezean, inongo pertsona fisiko edo juridiko ezin izanen da izan Nafarroako Foru Komunitateak mailegu-hartzaile gisa formalizatutako azken zorpetze-operazioko interes-tasaren ehuneko 50 baino interes-tasa txikiagoa duen mailegu baten onuradun.

4. *Parlamentuak berariazko baimena eman ezean, inongo pertsona fisiko edo juridiko ezin izanen da izan printzipalaren amortizazio-gabealdia 4 urtetik gorakoa duen mailegu baten onuradun.*

5. *Parlamentuak berariazko baimena eman ezean, Nafarroako Foru Komunitateak ezin izanen du eman xede jakin baterako mailegurik bermerik ezartzen ez duenik, ziurtatzeko ezen lortu nahi den xederako baliatuko dituela mailegu-hartzaileak funts horiek, ez beste ezertarako.*

82. *quater* artikulua. *Mailegua emateko erabakia.*

1. *Nafarroako Gobernuaren erabakiz emanen, edo, kasua bada, baimenduko dira aurreko artikuluan aipatzen diren maileguak, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak proposaturik.*

2. *Nafarroako Gobernuaren erabakia berariaz eragiketa bakoitzerako emana nahiz zenbait eragiketarako emana izaten ahalko da, eta betiere honako hauek zehaztuko ditu: mailegu-hartzailearen nortasuna, maileguak emateko epea eta gehieneko zenbatekoa, banakakoa edo osotarakoa. Nolanahi ere, zenbait eragiketaren baimen orokorraren kasuetan, ez da beharrezkoa izanen mailegu-hartzaileen nortasuna zehaztea.*

82. *quinqües* artikulua. *Maileguak formalizatzea.*

*Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak formalizatuko ditu maileguak, eta erregelamendu bidez ezartzen den moduan dokumentatuko dira.*

## 2. ERANSKINA. NFKAK ABALAK ETA MAILEGUAK EMATEKO GEHIENEN MUGAK.

Foru Komunitateko Administrazioa													
		2014			2015			2016			2017		
		2014rako AURREKONTU LUZATUAK (abenduaren 28ko 19/2011 FL, 2012rako aurrek.) <sup>(1)</sup>			2015erako AURREKONTU LUZATUAK (abenduaren 28ko 19/2011 FL, 2012rako aurrek.)			2016rako AURREKONTU LUZATUAK (abenduaren 28ko 19/2011 FL, 2012rako aurrek.)			2017rako AURREKONTUAK		
		19/2011 FL, abenduaren 28koa (2014-11-12ra arte)			19/2014 FL, urriaren 28koa (2014-11-13tik 2014-12-31ra)			19/2014 FL, urriaren 28koa (NOPFLaren xed. iragankorra)			1/2016 FL, urtarrilaren 29koa (2016-02-02tik 2016-10-02ra)		
		Gehieneko bolumena	Gehieneko arrisku bizia	Gehieneko bolumena	Gehieneko arrisku bizia	Gehieneko bolumena	Gehieneko arrisku bizia	Gehieneko bolumena	Gehieneko arrisku bizia	Gehieneko bolumena	Gehieneko arrisku bizia	Gehieneko bolumena	Gehieneko arrisku bizia
ABALAK		40	-	40	-	40	-	40	20	20	190	20	42
		% 5								9.50		2,10	
MAILEGUAK		-	-	-	-	-	-	-	0.8	0.8	90	-	61
		% 5								4.50		3,05	

(1) 19/2011 FL, abenduaren 28koa, Nafarroako 2012rako aurrekontu orokorreko buruzkoa. 12. artikulua. - Abalak: 40 milioiko gehieneko bolumena ezartzen du. Muga horren barrenean, baimena ematen zaio Landa Garapeneko Departamentuari abalak emateko lkerketa proiektuak eta bideragarritasun ekonomikorako, gehienez 1,5 milioi proiektu bakoitzeko; eta gainera, Sodenari, EIBrekin itundutako moduan, gehienez ere 150 milioi; Avelas Moderna programaren barruan, nazioartetzeko, gehienez ere 100 milioi; eta NFK-ko administrazio publikoaren sektoreko entitateei, gehienez ere 1,5 milioi.

(2) 11/2016 FL, irailaren 19koa, 2016rako Nafarroako aurrekontu orokorreko buruzkoa.

## 3. ERANSKINA. MENPEKO ENTITATEEK ABALAK ETA MAILEGUAK EMATEKO GEHIENEO MUGAK.

MENPEKO ENTITATEAK													
2014				2015				2016				2017	
2014rako AURREKONTU LUZATUAK (abenduaren 28ko 19/2011 FL, 2012rako aurrek.)				Arriku bizia 2014/12/3 1				2016rako AURRE-KONTU LUZATUAK (abenduaren 28ko 19/2011 FL, 2012rako aurrek.)		2016rako AURRE-KONTUEN ALDAKETA		2017rako AURRE-KONTUAK	
								19/2014 FL, urriaren 28koa (2014-11-13tik 2014-12-31ra)		1/2016 FL, urtarrilaren 29koa (2016-02-02tik 2016-10-02ra)		11/2016 FL, irailaren 19koa (2016-10-03tik 2016-12-31ra)	
Gehie-neko artisku bolumena	Gehie-neko artisku bizia	Gehie-neko artisku bolumena	Gehie-neko artisku bizia	Gehie-neko artisku bolumena	Gehie-neko artisku bizia	Gehie-neko artisku bolumena	Gehie-neko artisku bizia	Gehie-neko artisku bolumena	Gehie-neko artisku bizia	Gehie-neko artisku bolumena	Gehie-neko artisku bizia	Gehie-neko artisku bolumena	Gehie-neko artisku bizia
-	15	185	153	15	168	135	120	50	135	170	30	50	140
-	-	9.25	-	-	8.40	6,75	-	6,75	6,75	8,50	-	8,50	7
-	30	180	139	30	169	170	140	30	170	170	30	55	158
-	-	9	-	-	8.46	8,50	-	8,50	8,50	8,50	-	8,50	7,90
ABALAK													
% 5													
MAILEGUAK													
% 5													